


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2021-10-08 / 706. ZENBAKIA / 17. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

Edurne Pasaban eta Iñaki Peña Urnietan

Zanpatuz mendi elkarteak bi ikus-entzunezko eskainiko ditu Saroben, urriaren 21ean eta 22an hurrenez hurren. Maila handiko lanak ikusi ahal izango dira Urnietan / 10-11



**Egunean Behin
lehiaketako lehen
zozketaren irabazlea
izan da Ezkide
andoaindarra / 5**



**Kulturarteko topaketa
Urnietan, urriaren
16an. Elkarriketa
Estela Cuevas
antolatzaileari / 7**



Merkatalgune handiak eta on line plataformak, denda txikien galbidea

Azaroaren 20an berrogei urte beteko dira Andoaingo Ikelatz mertzeria ireki zutela. Laster itxiko dute, negozioari eutsi ezinda / 8-9





Aurtengoa bereziki hunkigarria izan da, hil diren hainbat kide omendu zituztelako. Argazkian, omenduen senideak. AIURRI

Joandako kideak gogoan

Atzera begira jarri zen Burdina elkarteak, joan diren kideak gogoan hartzeko. Baina ez ziren horretara mugatu eta etorkizuneko proiektuekin gogotsu agertu ziren. Ubaran bailaran egin dituzten aurkikuntzak balio handikoak direla aurreratu zuten

Xabier Lasa ANDOAIN

Belabi kaletik Goiburu aldera joateko bidean aurkitzen da Ortzaiakako karobia, eta Burdinak pizteko ohitura biziberritu zuen. Ekitaldi berezia izan zen, elkar-teari estuki lotutako lau lagun

omendu zituztelako. Laurak ere hilik dira, garai ezberdinetan. Baina gogoan hartu nahi izan zituzten, eta Burdinako kideentzat eta hildakoen senideentzat hunkigarria izan zen ekitaldia antolatuta zuten.

Joxe Paulo Usandizaga, Manu Izagirre, Regino Otegi eta Mikel Iradi dira azken urteetan galdu dituzten lau kideak. Senitarteak bertan zirela, aurraskua eskaini zieten. Segida izan zuen ekitaldiak Ekaitz Olo eta Ene-

ko San Jose txalapartarien partidetzarekin eta Ion Belokiren bertsoekin.

Burdina taldeko boluntarioek Ortzaiakako karobia pizteko orduan urtez urte gertu izan dituzten laguntzaileei esker ona adierazi nahi izan zieten. Baita Andoaingo Udalarari ere. Oroitarri bana oparitu zieten. Eskertza jaso zuten herrikideak hauexek izan ziren: Unai Barrutia dantzaria, Xabier Cabezon txistularia, Ion Beloki bertsolaria, Ekaitz Olo eta Eneko San Jose txalapartariak, eta Goiatz Salbador eta Aizpea Arruti trikitilariak. Udalararen izenean Maider Lainez Andoaingo alkateak jaso zuen eskertza adierazten duen ikurra.

Aurrera begira, ekimen betean

Elkarteak lan eta lan jarraitzen du eta alde horretatik Joxerramon Berrondok Ubaran bailaran

ondare historikoa berreskuratzeke egiten ari diren lana azaldu zuen. Auzokalte inguruan zenbait karobi berreskuratu edo lokalizatu direla aditzera emateaz gain, poza agertu zuen Txingurri izeneko parajearen aire libreko meategiaren arrastoak topatu dituztelako: "Aurreneko aldia da Andoaingo lursailetan iraganeko meategi-tokiren bat aurkitzen dela". Izan ere, Burdinak ondare historikoa berreskuratzeke ahaleginean egin duen hogeiterteko ibilbidean, Leitzarango bailaran Leitza, Elduaie eta Berastegiko lursailetan bakarrik aurkitu izan dituzte halako aztarnak.

Horren harira, Berrondok adierazi zuen ondo legokeela, etorkizunean, Otieta Bisitarien Etxeak tokia egingo balio meztaritzarekin lotutako informazioari eta materialari.



Karobiaren piztuera egin zuten Ortzaiakan, garai bateko ekitaldiak berreskuratuz. AIURRI

Ekitaldia Ortzaiaka karobian



Iradi, Otegi, Izagirre eta Usandizaren argazkiak omenaldi ekitaldian. AIURRI

Kideak gogoan Mikel Iradi, Regino Otegi, Manu Izagirre eta Joxe Paulo Usandizaga hildako kideak omentzeko aukera baliatu zuen Burdina taldeak, aurreko larunbatean. Senitartekoak bertan izan ziren eta aureskua eskaini zieten.



Karobia pizteko ekitaldia ohitura bilakatu da Ortzaiakan. AIURRI



Karobia piztu zuten, larunbat eguerdian. AIURRI

Piztuera Ortzaiakako karobia pizteko orduan, urtez urte gertu izan dituzten laguntzaileei eta Andoaingo Udalarari eskerrak eman zizkion Burdina taldeak. Sugarrak handi samarrak izatera iritsi ziren.



Udal ordezkariak eta Burdina taldeko kideak, omenduekin batera. AIURRI

Ekimen betean Burdinako Joxerramon Berrondok Ubaran bailaran ondare historikoa berreskuratzeke egitasmoaren xehetasunak eskaini zituen: "Aurreneko aldia da Andoaingo lursailetan iraganeko meategi-tokiren bat aurkitzen dela".

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

FELIPE IZAGIRRE URNIETA

Maixabel

Jakingo duzue "Maixabel" filma Donostiako Zinemaldiko Sekzio Ofizialean eskaini dutela; zenbaitek dagoeneko Basteron edo beste aretoren batean ikusi duzue. Badirudi filmak harrera ona izan duela, Zinemaldian eta zinema aretoan. Nik ere ikusi nahi nuen, eta tartea aprobetxatu nahi dut ikusi ondorengo sentipen, emozio, iritzi, eta nolaz ez, negar malkoen berri emateko.

Historia erreala ezaguna da. Maixabel Lasaren senarra, Juan Mari Jauregi, Gipuzkoako Gobernadore Zibil ohia eta PSE-EEko militantea zen. Tiroz hil zuen ETAK, Tolosako Beotibar frontoiko kafetegian. Hor hasten da Maixabelen gurutz bidea. Egun batetik bestera biktima bihurtzen da, bere barnean zauri sakona irekitzen da. Sumendia bailitzan sentimendu nahasiak, hala nola, haserrea, tristura, amorrua, mendekua..., sortzen dira.

Hiltzailea, berriz, biktimarioa bilakatzen da eta bere bizitzan, nahitaez, inflexio puntua.

Bien egunerokoa paraleloki garatzen joango da, nork, ahal duen moduan, bere egoera kudeatuz. Maixabelek, esaterako, alaba badu eta harentzat laguntza ezin hobea bihurtzen da. Denborarekin Maixabel Lasa pertsonaia publikoa bilakatzen da eta biktimen mundu horretan sartzen da. Jakina, biktima guztiek -elkarte asko baitira biktimen artean- ez dute begi onez ikusten.

Maixabel Lasa beti ikusi izan dut biktima berezi gisa, esan nahi baita, beti agertu dela presoan birgizarteratzearen alde, aitortu duela badirela gure gizartean beste sufrimendu asko; badirela gure gizartean, beste zenbait eragilek burututako hilak, eta denek merezi dutela aitortza, errekonozimendua eta erreparazioa. Gure herri hone-

tan kontaketa asko daude, memoria asko ere bai, noski. Pentsaera horrek kritika ugari ekarri dizkio beste zenbait biktimen elkarteetatik.

Bere senarra hil zuen ETAKo presoak ere bere bidea eginez joan zen; bere kontraesan, kezka, zalantzak ahal zuen moduan kudeatuz. Niretzat, filman agertzen den prozesu hori emozioz, sentimenduz josita dago. Negar malko ugari sentitzen da eta, niri behintzat, prozesu horrek denak negar malko ugari sortu zizkidan. Sakona bezain zaila da prozesua, konplexua, gorabeheraz beteta, inondik ere ez lineala; elkarrekiko begirada, komunikazio ez berbala, etab.

Denbora aurrera doan bitartean, zenbait preso, Juan Mari hil zuen ETAKo militantea barne, erakundea utzi eta Langraitzeko espetxera ekartzen dituztela. Hor sortzen da biktima eta biktima-

rioak aurrez aurre egin duten kaltea aitortu eta erreparatzeko aukera. Bitartekariak ere agertzen dira eta, erraza dirudien arren, ez da batere erraza. Biktimaren zauriak sakonak dira, eta denbora behar da.

Maixabelen kasuan, aukera hau sortzen denean, presio ugari sentitzen du bere inguruko jendearen aldetik. Nola hitz egingo duzu zure senarraren hiltzailearekin? Antzeko esamesak entzun behar ditu. Esan bezala, ez baita batere erraza.

Maixabelek ondo ezagutzen zuen bere senarra. Juan Mari gizon irekia eta elkarriketarako prestua zen. Badaki bere senarrak egingo zuela eta aurrera egiten du presio guztien gainetik. Presoak ere baditu bere zailtasunak baina aurrera egiten du.

Eta, hor non aurkitzen diren biak aurrez aurre, elkarri begira. Hor hasten da prozesua.

Kostako zaie errenditzea, baina ezin gara barruko gorrotoarekin bizi, burusuntsitzailea baita. Bizitzan ere gertatzen da: famulietan, bikotekideen artean, etab. Prozesu hori oso ongi islatzen da, eta azkenean, Maixabel eta presoaren artean barnea hustu eta garbitu ondoren, halako harreman estu bat sortzen da. Maixabelen lagunak haren senarraren monolitoan omenaldi bat egiteko biltzen direnean, auto batean eta elkarren ondoan, preso eta Maixabel bertara iristen dira. Jendea urduri dago, baina halere biak tinko agertzen dira. Presoak lore sorta jartzen du monolitoaren aurrean, denek harridurarako. *Xalbadorren heriotzean* abesten hasten dira, eta hori niretzat amaiera apo-teosikoa da.

Izango ahal du jarraipenik, hau baita bizikidetzarako bidea. Filmak badu mamia!!

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Etbez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



andoainDARRA
euskaraz



AIURRI

Ezkide Oteiza, lehen saritua

"Egunean Behin" lehiaketaren 8. denboraldia abiatu da, eta "Aiurri" taldean ehunka lagun murgildu dira eguneroko jokoan. Parte-hartzaileen artean zozketa egin eta gero, lehen irabazlea Ezkide Oteiza Larrea izan da. Zorionak! Asteartean Arruti gozotegiak eskainitako sari gozoa jaso zuen. Lehiaketaren aste berria martxan da eta beraz, aiurrikide guztiei animoak.



AIURRI

Zuhaitza lurrera, igande goizean

Leizotz industrigunean, Urnietatik Andoainera bidean dagoen Erroitz kalean zuhaitza lurrera erori zen. Igande goiza zen, eta aurreko orduetan euri asko bota zuen. Denbora batez eroritako zuhaitzak errail bat oztopatzen bazuen ere, gutxira errepidea garbitu zuten. Trentxiki aldetik eroritako zuhaitza zen. Gertaerak ez zuen aparteko eraginik izan, zorionez.

SAREAN

Juanjo Nieblak egin duen deialdia

Facebook bidez honako eskaera egin zuen urnietarrak, anaiaren heriotzaren urteurrena gertu denean: "Datorren astelehenean, urriak 11, arratsaldeko 18:30etik aurrera Donostiako Bulebarrean izango gara Asierrentzat eta genero indarkeriaren biktima ez diren guztientzat justizia eskatzeko. Hiru urte daramatzagu justizia eske. Justizia Auzitegi Gorenari eskatu nahi diogu berriro sar dezala generoari lotutako arrazoia, izan ere auzitegiak elementu hori baliogabetu zuen Asier emakumea ez dela argudiatuz. Asier hiltzeko arrazoi bakarra genero-arrazoia izan zen, eta beraz azken epaian argudio hori berriz sartzea eskatzen dugu. Asier ez sartzea diskriminatzailea da, eta genero-legea beharrezkoa dela uste dugun arren, legea zabaldu behar dugula uste dugu. Emakume horiek babesteko, baina baita inguruko guztiak ere. Inor ez dadila justiziarik gabe geratu. Hori da biktimei eta haien senideei duintasun pixka bat eman diezaiekeen gauza bakarra. Justizia Asierrentzat!! Zuen laguntzaren zain gaude".

EFEMERIDEA

Aldaketa Urnietako alkatetzan

Mikel Pagola alkateak bere karguari uko egingo ziola iragarri zuen 2020ko urriaren 2an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hiritarren Partaidetza saileko zuzendari kargua onartu eta gero. Egun horretan Batzokian agerraldia deitu zuten, xehetasun guztien berri emateko. Geroztik Jorge Seguradok hartu du alkatetza postua. Mikel Pagolak Urnietara zinegotzi modura jarraitu du, eta plenoetan bera da EAJ-PNVko bozeramailea. Pagolak 2011n hartu zuen alkatetza, 2020ko urrira bitarte.

GORA ETA BEHERA



Zazpi hilabeteko tratamendu luzeari amaiera eman dio

Ainara Albizu urnietarrak mezua zabaldu zuen, sareetan: "Bukatu dut tratamendua zazpi hilabete gordin eta gogorrek pasa ondoren. Egunerok zaindu nauten Osakidetzako ekipoa zoragarria izan da. Orain biziberritzea tokatzen zait. Pixkanaka gorputza martxan jarri eta burua orekatzen saiatu!". Animo!



©AYLA_EH

AIURRITIK

Ikusbera haur aldizkariaren zenbaki berria

"Udazkena", izenburu horren pean argitara eman da Ikusbera haur aldizkariaren 36. zenbakia. Aiurriko harpidedunek etxean jasoko dute, datozen egunetan. Ohikoan bezala, aldizkariaren bitartez jolastu, ikasi eta pentsatzeko aukera izango dute. Aiurrik sustatzen duen haur aldizkariaren zabalduz handituz doa, gainera. Aiurriekin ez ezik, beste hainbat tokiko hedabideekin ere zabaltzen baita. Besteak beste, Baleike, Pil-pilean, Uztarria, Karkara eta Maxixatzenekin batera.

Panelak eskatzeko erabateko adostasuna

Irailaren 30eko Udal batzarraldian 5.100 sinadura bildu dituzten herritarrek mozioa aurkeztu zuen. Alderdi bakoitzak bere iritzia eman eta gero, aho batez onartu zen bizilagunen eskaera

Erredakzioa ANDOAIN


Irailaren 29an N-1 errepideak sortzen dituen arazoei buruz hitz egiteko bilera irekia deitu zuen Andoaingo Udalak. Eta biharamunean plenoa ospatu zen. Bi egunez jarraian zarata saihesteko irtenbideak eskatzen dituzten herritarrak eta Udal ordezkariak gaiari buruz hitz egiteko aukera izan zuten.

Plenoan mozioa eztabaidagai izan zen. EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos alderdien babesarekin eztabaidara ekarri zen proposamena. Eta bozketa garaian EAJ-PNVk ere bat egin zuen ekimenarekin. Beraz, aho batez onartu zen mozioa.

Erabateko adostasuna lortu arren, xehetasunak izan ziren eztabaidatan. Sinaduren sustatzaileentzat Aldundiak historikoki ez die herrikideei jaramonik egin, eta hori errealitatea desitxuratzea dela adierazi zuten jeltzaleek.

Zaratarekin amaitzeko mozio proposamena

"Behingoz herrikideak entzutea eta bizi kalitate hobea izatea nahi dugu. Gipuzkoako Foru Aldundiari lanean jartzeko eskatzen diogu. 5.100 sinadura bildu ditugu, asko dira". Horixe da laburbilduz mozioaren sus-



Mimendi eta Bazkardo aldean bereziki nabarmena da bizilagunen protesta. AIURRI

tatzaileek adierazi zutena. Udal ordezkariak herrikideen sinadurak kontutan hartzea eta Aldundiari irtenbidea exijitzeko garaian babesa ematea eskatu zieten. Mozioa aho batez onartu zen, eta alderdi bakoitzak bere iritzia eman nahi izan zuen. Eztabaida osoa ikusgai dago Andoaingo Udalak youtubean duen kanalean zintzilikatu duen bideoan.

Udal ordezkarien adierazpenak

Adierazpenen laburpena, solaskideen hurrenkera errespetatuz:

• **Andoni Alvarez Lete, EH Bildu:** "2011n bazegoeen egitasmo bat, abiapuntu bezala har zitekeena. Bien bitartean, bizilagunek dioten bezala, panela edo antzeko irtenbideak eskatzearen alde gaude. Gai honek behar duena da mahai bat osatzea, udal ordezkari teknikari eta herri eragileekin".

• **Tere Santano, Elkarrekin Podemos:** "Babes osoa herrikideei, irtenbidea orain eman behar delako. Denboran luzatu den arazoa da. Gainean egotea dagokigu, beste udalerrietan arazoari konponbidea eman dioten bezala".

• **Marijose Izagirre, EAJ-PNV:** "Kontsentsuak denok indartzen gaitu, trafiko handiari eta zaratarari irtenbidea ematea eskutik doazelako. Zoritxarrez, eztabaidara ekarritako mozioa eta hainbat adierazpen mingarriak dira. Ez baitatuz errealitatearekin bat, edo errealitatea distortsionatu nahi delako".

• **Maidier Lainez, PSE-EE:** "Bilera irekia deitu genuen eta parte hartzea sustatuko dugu gai honetan. Ados gaude ez dela irtenbiderik eman eta badela garaia irtenbidea emateko. Alkatetzatik gainean gaude. Eta sinaduren sustatzaileekin lanean aritu gara".

Bost milatik gora lagunen babesa



Alejandro Calonge aldera doan zubian, protesta ekitaldia. AIURRI

Protesta N-1 errepidean Josune eta Manu andoaindarrak, goizero, N-1eko oinezko pasabidean jartzen dira irtenbideak eskatuz, trafikoaren zarata-dela eta. Ordu erdiko egonaldia egiten dute pankarta eskuetan dutela, 07:45ak aldera hasita.



Panelan, uztailean Aldundiak aurkeztutako egitasmoaren irudia. AIURRI

Sentsibilizazio kanpaina Soinuen arazoari irtenbidea emateko eskaera azken hilabeteotan areagotu da, bereziki Mimendi eta Bazkardo aldean. Uztailean Aldundiak aukera ezberdinak aurkeztu zituen, eta horietatik hizpide izan zituzten Goikoplazan.



Hainbat herrikide elkartu zen udaletxearen kanpoaldean. AIURRI

Bizilagunen elkarretaratzea Plenoa hasi baino ordu erdi lehenago, hainbat herrikide Goikoplazan elkartu ziren. Eurek landutako mozioa aztergai izan zen eta presio modura bertan egon nahi izan zuten.

Sorabillakoen mozioa, garraio publikoari lotuta

Gipuzkoan zeresana ematen jarraitzen duen bus zerbitzuaren esleipen berriaren harira, Sorabilla-Errotagain auzokide elkarteak udalerriko ibilbidea auzoan bertan hasi eta amaitzea eskatu zuen. Mozio berean erabiltzaile askoren kexa bere egiten zuten, maiztasunari eta ospitaleetako zerbitzua berrezartzeari dagokiona. Ahobatez onartu zen mozioa.



Mozioa ahobatez onartu zen. AIURRI



Estela Cuevas urriaren 16ko hitzordua iragartzen duen afitzarekin batera. AIURRI

“Topaketek harremanak saretzen dituzte”

ESTELA CUEVAS ETXEBERRI AUZOKIDEEN ELKARTEA

Kulturarteko Topaketa antolatu dute Urnietan, urriaren 16rako. Askotariko kulturak abiapuntu, aniztasuna aldarrikatzea du xede hitzorduak

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Nondik dator topaketa egiteko ideia?

Orain urte asko proposatu zidan lagun batek. Lasarte-Oriako ikastola batean egin zuten eta jaialdi berdina Egape ikastolan egiteko ideia eman zidan, izan ere, garai hartan Lehen Hezkuntzako Guraso Elkartearen nintzen. Oso egitarau xumea osatu genuen: joko kooperatiboak egin genituen goizean, eta, eguerdi partean, gastronomia hitzordua; nork bere herrialdeko janaria eraman zuten, guztion artean partekatze-ko. Antzerkia ere egin genuen.

Hori horrela, ohitura bilakatu genuen eta, urteek aurrera egin ahala, kontzertuak ere hasi ginen antolatzen. Ildo beretik, Etxeberrri auzokideen elkartearen nago eta eskolako proiektua motz gelditzen zela ikusita, herrira zabaltzea erabaki nuen. 2019ko udazkenean egin genuen eta oso jende gutxi bertaratu zen, eguraldi kaskarra medio. Are ehiago, ez zen ia jatorriz urnietarra den jendea gerturatu.

Eta hori zergatik dela uste duzu?

Nahiko "itxiak" gara horrelako gauzetan, nahiz eta belaunaldi gazteenekin hori aldatzen hasia den. Oso "bertakoak" gara, eta atzerriko jendearen gaineko irudi desitxuratua daukagu. Aukera eman behar zaio jende guztiari.

Hurrengo asteburuko topaketa antolatzeke berrasmatu egin behar izan zarete, ezta?

Bai, asko aldatu da emaitza hasierako ideiatik, pandemiaren egoera dela-eta. Martxoan bilera egin genuen Gipuzkoako Foru Aldundian: bertan egun osoko egitaraua osatuko genuela aurreikusitu genuen. Dena den, gastronomia hitzordua ezin izango dugu egin. Hutsune hori betetzeko foodtruck delakoa ipiniko dugu.

Gauzak horrela, arratsean izango da topaketa, eta hainbat postu izango dira bertan.

Sortzaile-azoka ipiniko dugu: "Munduko merkatuak". Hala, askotariko artistak etorriko dira,

baita urnietarrak ere. Ondoren, eskulanetarako tartea ere izango da: hala nola, Puochi Nah-ko kideek koadernoak apainduko dituzte oihal afrikarrek; bestalde, hennarekin tatuajeak egiteko aukera egongo da Indiako familia baten eskutik; horrez gain, familia etiopiarrek trenzak egingo dituzte.

Beste gune batean, joko kooperatiboak izango dira. Azkenik, zenbait kontzertu antolatu ditugu, besteak beste: txalaparta, aerorunba Jenny Perlazarekin, Lua Matheus bossa novaren erritmopean... Jaima bat ere izango da, eta Marokoko lagunek tea zerbitzatuko dute, baita musika ipini ere.

Aniztasunari bide ematen al diote horrelako bilguneek?

Bai, eta Urnietan, gainera, beharra dago, gero eta jende gehiago baitator kanpotik gure herrira bizitzera. Horrelako topaketek harremanak saretzen dituzte. Elkartu gaitezten, oso aberasgarria da eta.



IRITZIA

ALBA CABRERA JAUREGI URNIETA

Aspaldiko partez

Aurten ere kobazuloan gelditu da Miela. Aurten ere ez da izan patata-tortila lehiaketarik, ez eta herri bazkaririk ere. Alabaina, batek baino gehiagok hasi du astea buruko minez, aje emozionalarekin, asteburuan zer gozatu izan denaren adierazgarri. Poxta Zahar gazte koadrilen elkarrekin ardura berezia izan ohi du herriko jaietan eta aurten ere ez du kale egin; egoerak ahalbidetu besteko aukera ederra luzatu die herritarrei festez gozatzeko.

Dardara egin zuten herriak ostiral arratsaldean, eta Bassagain Soinu Sistema anoetarra izan zen horren erantzule: reggaearen nahiz dancehallaren doinupean aritu ziren dantzan urnietarrak; haurrak, gazteak eta helduak. Lagun lotsatienak ere izan zuten aitzakia ederra bafleetatik gertu izateko. Aspaldiko partez.

Larunbata izaten da jaietan herritar gehien biltzen dituen eguna, baita aurten ere. Goizean goizetik (eguraldiak lagunduta, gainera) gora eta behera zebilen jendea Idiazabal kalean. Nork bere kabuz egin zuten bazkaria, baina iluntze partean bildu zen herri osoa Plazido Muxikan. The Roristak taldeak ireki zuten eguneko kontzertuen egitaraua.

POXTA ZAHARREK ARDURA BEREZIA IZAN OHI DU HERRIKO JAIETAN ETA AURTEN ERE EZ DU KALE EGIN

Sekulako giroa ipini zuten; pozgarria da, gainera, herriko festetan etxeok mikrofona eskuan ikustea. Aspaldiko partez.

Kitadelpare txarangak hartu zion lekukoa, ondoren; eta ondo hartu, gainera, zeren dantzan jarri baitzuen herria, baita alboko tabernako terrazan eserita zeudenak ere. Jada ahazten hasia zuten urnietarrek larunbat arratsaldean txaranga baten atzetik ibiltzeko ohitura. Bada, aurtengoan, plazatik mugitu gabe izan bada ere, berreskuratu zuten bizitasuna. Aspaldiko partez.

Sanmielek batu egiten dute Urnieta; urteko gainerako egunetan ikusten ez den konplizitatea izaten da jaiak irauten duten egunetan. Herria zapaltzen ez duen urnietarrak ere nahikoa arrazoi ditu iraileko azken asteburua etxean igarotzeko. Eta aurtengo festak guztiz ohikoak izan ez arren, agerian utzi dute pandemia batek ez duela jaietarako grina eten. Zapia erantzutea tokatzen da orain, asteburuak emandako bizitasunak sortzen duen nostalgiaz. Baina hurrengo urtean izango dira kontuak, eta kantuak. Laster arte, Miela, inoiz baino gogo handiagoarekin gaude zu berriro ikusteko!

HURRENGO URTEAN IZANGO DIRA KONTUAK, ETA KANTUAK. LASTER ARTE, MIELA!

Birziklapen tasak beheruntz egin du pandemia garaian

Birziklatzearen onuraz eta hondakinak behar bezala sailkatzeak duen garrantziaz ohartarazi du Udalak

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak zabaldutako oharraren arabera, birziklapen tasa jaisten ari da. 2017. urteko urrian bilketa sistema berria ezarri zenean bilketa selektibo-

ren batez bestekoa %51,5ekoa zen eta %71,4koa izatera iritsi zen 2019. urtean. 2020an aldiz, %71ra jaitsi zen, eta aurtengo urtariletik uztaile bitartekoa %69koa izan da.



Olatz Olmedo dendaria Kale Nagusian duen Ikelatz mertzerian ateratako argazkian. AIURRI

"Urte gutxira denda txikiak desagertu egingo dira"

OLATZ OLMEDO IKELATZ MERTZERIKO DENDARIA

Kale Nagusian berrogei urtez zabalik izan den negozioak atek itxiko ditu, laster. Internet bidez areagotu den online salmenta denda txikien galbide bilakatu da

Negozia beheruntz doa eta ordainketak egiten jarraitu beharra dago. Erosten dudaren eta saltzen dudaren artean, ez dit negozioarekin aurrera jarraitzeko aukera ematen.

COVID-19ak gehiago okertu al du lehendik bizi zenuten egoera zaila? Pandemia internet bidez erosteko beldurra uxatzeko baliagarria izan zaio bati baino gehiagori. Jende gehiagok on line bidez erosteko aukera hori ikasi du. Oso erosoa zaie, etxerainoko zerbitzua eskaintzen dutelako. Guri lan hori kendu digute. Erabaki bat hartu behar izan dut.

Erabaki gogorra.

46 urte ditut, eta horietatik 30 denda honetan eman ditut. Pentsatzen jarrita, zenbat denbora itxaron behar dut egoera aldatzeko edo hondoak jotzeko? 46 urterekin ez nago jubilatzen. Oraindik urte asko eman behar ditut lanean. Pena handi-handia dut, ez dakizue zenbateraino! Amak hasi baitzuen negozioa eta nik eman nion segida gero.

1981eko azaroaren 20an zabaldu zen denda, eta hortxe-hortxe 40 urte egingo ditu zabalik. Sentimentalki, erabaki gogorra da. Kosta zait. Amak ere pena handia du, ni hemen erretiroa hartzen ikusten ninduelako. Eta neronek ere hori pentsatzen nuen duela 15 urte. Interneteko negozioek kolpe handia eman digute.

Urte hauetan guztietan erosleen aldetik zein joera nabarmendu da?

Asko aldatu da. Denda txiki-txikia zen ireki genuenean. Hariak, gomak, telak, forroak... mertzeria txikia zen. Gerora kamisetak eta kuleroak. Duela hamabost urte dendaren atzealdetik zabaldu genuen negozioa, eta hor eskaintza zabaldu nuen: Adin guztietarako pijamak, lanetarako arropa, Eguberrietarako arropa, bata... Apustua egin behar nuen. Urte asko eman dugu horretan, baina azken seizazpi urteetan negozioa asko jaitsi da. Antzeko negozioetan egoera bertsua bizi dutela antzematen dut.

Zein oroitzen gordeko duzu?

Txikia nintzela ireki zuen amak negozioa. Sei urte nituen eta hemen bizi nintzela esan daiteke. Bitxia da, zeren eta nire amaren bezeroak txikia nintzela ezagutu nituen. Denbora pasa da eta bezero berdinak igaro dira dendatik. Helduagoak, bai-

J.A. Ubeda / F. Irazu ANDOAIN

Negozia ixtera zoaz, amak ireki zuena. Zein ibilbide izan du urte hauetan guztietan?

1981ean amak ireki zuen, mertzeria bat Andoainen beharrezkoa zela uste zuelako. Oso ondo hasi zen negozioa, eta 16 urterekin ni neu ere lanean hasi nintzen. Baina denboraldi batek hona aldaketa etorri da. Erosteke garaian, bereziki. Herrian jendea hasi zen hedadura handiko gunetara joaten. Horek ez zigun erabateko galera ekarri baina azken zazpi urte hauetan internet bidezko salmentak eragin handia izan du. Amazon eta antzekoak zerbitzua eskaintzen hasi ziren, eta guk ez dugu horrelako ekimenik martxan jarri.

Negozio horien agerpenarekin herriko bezeroekin, betikoekin, lanean segitzeko aukera izango nuela pentsatzen nuen. Baina gauzak asko aldatu dira. Zazpi urtetik hona, bereziki.



Pena handiz, baina negozioaren atek itxi beharrean dagoela dio Olatz Olmedok. AIURRI

na horiek bezero fidelak izan dira. Herrian bizi eta herrian kontsumitzen zuten.

Zer esango zenioke betiko bezero horri?

Ixteak pena handia ematen didala esango nizuke. Hau ez da denda ireki eta saltzea. Merkatalgune handietan ez bezala, tratua oso garrantzitsua da hemen. Konplizitate handia lortu dugu bezeroarekin. Lagunak eta guzti egin ditut. Gauza onak eta txarrak kontatzeko hurbiltzen dira, eta gu, tarteka, horretarako gaude. Jendeak gertuko harreman hori behar du. Dendan esperientzia pila bat izan ditut. Barre asko egin dut, haserretu naiz, eta negar ere egin dut. Penaz, batzutan. Urteen poderioz bezero asko hil egin zaizkigulako. Dendan egotea bizitzeko modua izan da niretzat. Bizitza-

ko etapa bat bezala hartzen dut, hilabete gutxiren bueltan bukatuko dena. Barruan geratuko zait urte hauetan guztietan bizi izandakoa.

Elkarrizketan zehar diozunagatik tokiko merkataritzaren egoera, beraz, ez da batere samurra izango. Hemendik urte batzutura, 5-7-10-15 urtetara, herriko denda txikiak desagertu egingo dira. Jendea ez da kontziente nola aldatzen ari den gauza. Bezero gehienak adinean gora doaz, eta bezero gazteak ez dira hurbiltzen. Oso gutxi dira hona hurbiltzen direnak. Zergatik? Dagoeneko ez delako lehen bezala josten, herrikide asko kotxea hartu eta haurrekin eremu handiko merkatalguneetara joaten delako. Han ez dute hotzik pasatzen, ez dira bustitzen, eta dena eskura dute.

Ni baino zaharragoak diren dendariak jubilazioa iritsi arte eusten ahaleginduko dira, lan merkaturan aukera askorik ez dutelako topatuko. Tarteko egoeran nago, ez bainaiz gaztea ezta adinekoa ere. Beste bide batetik jarraitu nahi dut lan munduan. **Zer esango zenioke merkataritzan bidea egiten ari den gazteari?** Lokal asko dago itxita Andoainen. Negozio batzuk ireki dira, baina itxi ere. Pazientzia handia behar da, eta ilusio pila bat. Zortea izan dezala! Ez gaudelako une onean.

Ticket BAI bezalako ekimenekin zaildu daiteke, katramilatsua iruditzen baitzait sistema hori. Tokatzen zaienei, moldatzen jakin beharko dute. Pazientzia handiz eta ilusioz has daitezela. Ea gertuko administratziotik laguntza jasotzen duten.

1981eko azaroaren 20tik zabalik



Aspaldiko irudiak gordetzen dituzte dendan. IKELATZ

Ramoni Sueiro amak zabalduetako negozioa eta bertan erretiroa hartu zuen. Argazkian, amak "Ontzerri saria" izenekoa banatu zueneko. Maria Cristina Abuinek Panasonic kamera bat jaso zuen egun hartan.



Olatz dendaren kanpoaldean. AIURRI

Olatz alabak eman zion jarraipena Negozioa ondotxo zihon, harik eta online bidezko merkataritzak egoera estu-estu jarri arte. 46 urterekin, lan ibilbidean beste norabide bati ekingo dio Olatzek. Hogeita hamar urte egin ditu Kale Nagusiko negozioan.

"Epe luzera denda fisikoa desagertuz joango da"

Ildo berean hitz egin zuen Andoaingo Pottoko dendako nagusiak, urte hasieran eskainitako elkarrizketan

HEMEROTEKA

AIURRI / 2021-02-07

Silvia Molano Andoaingo Pottoko dendako nagusia da. Negozioak hamabost urte bete dituenean, geldialdi handi samarra bizitzen ari zela adiera-

zi zion Aiurri astekariari, urte hasieran egindako elkarrizketan: "Hainbat sektoretan gertatzen ari da, eta epe luzera denda fisikoa desagertuz joango da. Pandemiarekin prozesu hori azkartzen ari da. Nire iritzia

da, baina jendeak ez du internet bidez behararren arabera erosten. Jendeak zuzenean Amazonen erosten du, eta enpresa bakarra aberats bihurtzen ari gara. Monopolio hutsa da. Zer gertatuko da zure alabak edo gure ilobek ikasi nahi ez eta lan egiteko erabakia hartzen badute? Nora joango dira lan eske, Amazonera? Ez da dendarik egongo udalerrietan, ez da deus geratuko. Merkeagoa dela? Alderatu egin beharko genuke produktu berdina. Ez nago ados.



Silvia Molano. AIURRI

Produktu batzuetan egongo da aldea, baina diferentzia handiena dago Amazonek ez duela autonomoen kuota ordaintzen, dirutza paradisu fiskaletan gordeta daukate... Ondorioz, irabazien zatirik ez da zergen bitartez estatura itzultzen. Eta ez ditugu errepideak behar bezala konponduta. Guztioi eragiten digun joera da, eta pandemiak egoera okertu besterik ez du egin". Tokian tokiko dendak erakusleio bihurtu direla zioen, "geroz eta gehiago".



Edurne Pasaban mendizalea. PASABAN

Andoni Urbistondo URNIETA

'Chhaupadi' dokumentala eskainiko du tolosarrak, Nepalgo emakumeek hilekoarekin jasaten duten diskriminazioa hizpide; Peña zainketa aringarrietako medikuak 'Mendian hil, hirian hil' eskainiko du, heriotzaren osteko bizipenak ardatz dituen emanaldia.

Zanpatuzek bi emanaldi antolatatu ditu urriaren 21 eta 22rako Sarobe Arte Eskenikoen Gunean. Pasa den irailaren 23an Mendi Film Festival-eko kideak izan ziren gurean, eta haien emanaldiek arrakasta handia lortu zuten, aretoa bete egin baitzen arauak baimentzen duten kopuruan. Urriaren 21 eta 22an beste bi emanaldi antolatu ditu mendia taldeak, Udalarekin elkarlanean, eta Sarobek hilabete atzera erakutsi zuen itxura polita berbera erakustea espero da. Sarrerak salgai daude da goeneko, Saroben bertan.

Pasaban eta Peña Urnietan, Zanpatuzen eskutik

MENDIZALETASUNA Zanpatuz Mendi Elkartek bi emanaldi antolatu ditu Saroben, urriaren 21 eta 22rako. Pasa den irailaren 23an Mendi Film Festival-eko kideak izan ziren gurean, eta haien emanaldiek arrakasta handia lortu zuten urnietarren artean

Bertaratuko diren gonbidatuak ezagunak dira. Urriaren 21ean, ostegunez, Edurne Pasaban mendizalea izango dugu Saroben, iluntzeko zazpitan hasita. Mendizale tolosarrak Chhaupadi dokumentala eskainiko du, Nepalgo emakumeak ahalduntzeko helburuz 2018an osatu zuten emanaldia. 2019ko Mendi Film Festival entzutetsuan Sail Ofizialeko dokumentala izan zen.

Nepalen bada Saipal izeneko bailara bat, eta bailarako mutur batean 7.000 metro pasatzoko mendia, izen berekoa. Pasabanek mendia horretara igotzeko espedizioa osatu zuen, Jorge Egocheaga mendizale asturiarra lagun. Saipal bailarako bost emakume ere eraman zituzten espedizio hartara, eta gailurra iristea lortu ez bazuten ere, bailara hartako emakumeen egoera larria munduratzera lortu zuten. "Aspaldiko ohitura dago indarrean bailara hartan. Emakumeak hilekoa dutenean etxetik bidaltzen dituzte, txabola narras batzuetan bizitzeko, oso baldintza txarretan, lizunak edo zikinak direlakoan. Eta egoera lazgarri horri ikusgaitasuna eman nahi genion".

Nola? Euren espedizioan emakumeak ahaldunduz, bertako tradizioen baitan emakumeek ezin dutelako goi mendietara igo: "Jainkoak haserretu egingo lirakeela diote gizonak, emakumeak mendira joanez gero, emakumeak etxeko lanak egiteko daudela pentsatzen baitute hango gizonak. Tristeia izan zen gizonak zurrutean ikustea, eta emakumeak lan eta lan", Edurnek dioenez. Dokumentalak ordu eta erdiko iraupena du, eta bailara hartako egoera azaltzen du gordin-gordin: "Ez genuen gailurra egin", dio Edurnek, "baina bertako emakumeen bizipenak eta beldurrak azaltzen dira, eta hori da garrantzitsuena".

Pasabanek zama eramaile baten, eta bere lau alaben anekdota bitxia kontatzen du, amu gisa: "Bertakoek ez zuten nahi emakumeek espedizioan parte hartzea, txoke handia izan zen eurentzat. Zama eramaile hori, baina, hilekoa duten emakumeak bakartzeko tradizioaren aurka dago, eta herriak bera eta familia nola baztertzen dituen azaltzen du modu gordinean, egin nion elkarrizketan. Hainbestera, hilekoa dutenean bere lau alabak gorde egiten dituela

etxean, bertako gizonek herritik urrun dauden borda narrasetara eraman ez ditzaten”.

Dokumentalaren ostean, ordu erdi edo 45 minutuz, solasaldia egingo da. Pasabani dokumentalari buruzko galderak egiteko aukera izango dute bertaratzen direnek, baita urtetan Himalaya mendikate handian egin duen bidearen inguruan ere. Gogoan izan tolosarra munduko lehen emakumea izan zela zortzi mila metroko 14 mendiak igotzen. 2010. urtean lortu zuen balentria hori, eta orduz geroztik bere bizitza nabarmen aldatu da. Egun Donostian egiten du urte erdia, eta Vielhan, Aran bailarako hiriburuan beste erdia (Kataluniako Pirinioak). Han mendi irteerak antolatzen dituen agenzia bat dauka, ama da, eta coaching hitzaldiak ere ematen ditu han eta hemen, hainbat enpresa, elkarte eta unibertsitateetan.

Ostiralean ‘Mendian hil, hirian hil’ emanaldia

Ostiralean, urriak 22 dituela, eta ordu berean, Iñaki Peña Bandres, Arrasateko erietxean lana egiten duen zainketa aringarrietako medikuak aurkeztuko du bere lana. Egunerokoan heriotza gertutik ikusten duen mediku bilbotarra da Iñaki, eta bere ihesbidea, mendia da. ‘Mendian hil, hirian hil’ dokumentala baino lehenago dolua ardatz zuten beste bi lan ekoitzi zituen: ‘Aulki hutsak’, lehena, eta ‘Dolua eta indarkeria’, bigarrena. Lan horrekin Urrietan izan zen Iñaki Peña, urte batzuk atzera, azken emanaldi horren inguruko solasaldi batean parte hartzen.

Hirugarrena trilogia baten modukoa dela dio medikuak, “mendian kokatutakoa, eta mezu



Iñaki Peña, “Mendian hil, hirian hil” dokumentalaren egilea. PEÑA

garbiarekin: bakoitzak gure bidea egitea, mendian disfrutatzaren aldekoa, bizitzaren aldekoa. Pandemia garai hauetan ikusi dugu ze hauskorrak garen. Nik, medikua naizen neurrian, badakit, eta nire lanekin jendeak hori ulertzeko bitartekoak jar baditzaizket, gustura”. Doluari buruzkoa da dokumentala, baina hiriarekin ere lotura duena. “Eta progresiboa, esperantzazantz, non saiatzen garen azaltzen heriotza baten ostean ze gauza

URRIAREN 21EAN EDURNE PASABAN HURBILDUKO DA SAROBERA, ETA 22AN IÑAKI PEÑA

politak gerta daitezkeen. Iñaki Otxoaren Fundazioarekin, adibidez, edo Mikel Cresporen kasuan urtez urte egiten dutena, bere herrian, eta Xabier Ormazabalaren kasuan mendi espedizioetarako beka bat Urretxun. Tragedia batetik gauza positiboak atera daitezke. Begira Pumor mendian ze gertatu zen. Bizitza ugari galdu ziren han, baina Suku Maya Aizarnan dago, euskaraz bakarrik dakien Nepalgo neskato bat”.

‘Mendian hil, hirian hil’ proiektua Gasteizen egin zen zainketa aringarrien inguruko Kongresu baten ostean bururatu zitzaion, aurrez kaleko jendeari begirako hainbat ekitaldi antolatu baitzituzten: “Buelta batzuk ematen, Jorge Nagore kazetari nafarra

elkarrizketatzea pentsatu nuen. Iñaki Otxoa de Olzaren laguna zen, Annapurnan, mendian hil zen mendizale nafarra, eta hirian hil, ba Jorge bere ama zenari idatzi zizkion testuak aintzat hartuz. Niretzat maisu bat da halako epitafoak idazten. Hor hasi zen dena”.

Mediku bat kazetari bat elkarrizketatuz piztu zen argia. “Bi munduekin, mendia eta hiriarekin konektatu duten antzeko testigantzak bilatu nituen. Batzuek harreman handiagoa dute mendiarekin, besteek hiriarekin. Iñigo Suberbiola medikua, Felix Zubia medikua eta beste ere agertzen dira dokumentalean, heriotza duinaz mintzo, eta azken produktuarekin oso gustura geratu naiz”.

Iñakik idaztea, jostea gustuko du, eta dokumentalean grabaketak ere berak egin ditu, zuzendari eta gidoilari lanez gain. Aretxabaletako Arteman etxea arduratu da lan teknikoaz, “muntai lanetan ni neu presente egon izan banaiz ere”. Heriotza hitza gogorra da edonorentzat, eta Iñaki Peña elkarrizketatu zituen pertsona guztiekin batzartu zen aurrez, eurekin halako konplizitate lortu, eta dokumentalean parte har zezaten: “Zenbaitzuk lagunak dira, dagoeneko. Astero pare bat grabaketa egin nituen, batez beste”.

Lekukotza ematen dutenen artean, asko medikuaren ezagunak dira. Juanjo San Sebastian, besteak beste. Iñakiren bizila-

BI DOKUMENTALEN OSTEAN SOLASALDIRAKO TARTEA ZABALDUKO DUTE

guna izandakoa, “eta bere esanak harritzeko moduko patxadarekin botatzen dituenak, pasa dituenak pasata ere. Andoni Ormazabal Xabier zenaren anaiarekin ere konexio berezia izan dut. ‘Mendiminez’, Ramon Olasagasti kazetariaren liburua ere aipatu nahi nuke, inspirazio iturri izan baitzen nire lanetarako. Nire aita hil zenean irakurri nuen, eta markatu ninduen”. Testigantzak biltzen, dokumentala osatzen une hunkigarriak bizi izan ditu Iñaki Peña: “Balaitous mendia jaisten hil zen Aretxabaletako Mikel Cresporen pasadizoa, bere familiarekin, eurek nola askatu diren nabarmenduko nuke, dolu prozesuan zeurrerapausoa eman duten”.

Edurne Pasabanen dokumentalarekin bezala, ‘Mendian hil, hirian hil’ dokumentala bukatuta solasaldirako tartea izango da Saroben. Iñaki Peña emanaldiaren ondoren ikusle eta egilearen artean sortu den feeling berezia nabarmendu du: “Ordizian Andoni Ormazabal Xabier zenaren anaia nirekin zen, eta oso une hunkigarriak bizi izan nituen. Turretan ere bai, eta egilearentzat sentsazio bikaina da, asmatu duzunaren gauza hori”. Urriaren 22an, Iñigo Suberbiola lankidea izango du alboan, ikusleek euren jakin mina apaltzeko jardunean. Iñaki Otxoa de Olza zenak esan zuen, hil aurretik, gure gizartea ez dagoela heriotzari aurre egiteko prest, une batean bukatzen den zerbait dela, eta ez dagoela ezer ondoren. Peña dioenez, “prestatu gaitezke. Nik gertutik ikusi dut pertsonak nola aldatu diren, gertu nagoelako nire egunerokoan, baina heriotza urrutetik ikusten baduzu, ez da hain erraza begietara begiratzea”.



- **Ehunka lagun jokoan, denboraldi berrian.**
- **Adi "Aiurri" taldeari! Astero sari gozoa Arrutiren eskutik.**





Mendizaletasuna sustatzeko hitzordu bikoitza deitu dute. EUSKALDUNA

Euskalduna taldeak mendi irteera bikoitza antolatu du

MENDIZALETASUNA Igande honetarako bi ibilbide antolatu ditu, biak ere inguruko mendietan barrena

Erredakzioa ANDOAIN

Euskalduna mendigoizale elkar-teak bi irteera antolatu ditu datorren iganderako. Bata, luzea eta bestea laburragoa, biak inguruan bertan. Zehazki, Leizotz bailaran eta Adarran barrena. Hamabost hilabetetako etenaldiaren ondoren, geldirik dauden jardueri berrekin nahi diote.

Bi ibilbide

- Ibilbide luzea (5 ordu), Kale Nagusiko egoitzaetik 08:00etan abiatuta Iyuya, Eteneta, Adarra, Aballarri eta Besabitik txangoa, herrigunera iritsi arte.

- Ibilbide laburra. Baltzun-Besabi-Mizpiradi-Andoain arteko zeharkaldia izango da. Aldatzeko erropa egoitza bertan utzi ahal izango da.

Zuzendaritza berria aukeratzeko batzarra

Euskaldunako bazkideak gogoe-ta prozesuan murgilduta dabil-tza azken hilabeteetan, klubaren etorkizuna hizpide izanda. Hainbat batzar egin ostean, azkenik, datorren azaroaren 13an batzar orokorra egingo dute, lehendakaria eta zuzendaritza batzordea hautatzeko asmoz.



NOAUA

Ibilbideen eguna, hilaren 17an

MENDIZALETASUNA Andoaingo, Urnietako, Hernaniko eta Usurbilgo Udalek Buruntzaldea Mankomunitatearekin batera antolatzen duten eguna da, mendizaletasuna sustatzeko helburuz. Eskualdean zehar hainbat ibilbide daude, eta horiez gozatzeko aukera dago. Batetik bestera busean mugitzeko erraztasunak jartzen dituzte, gainera, egun horretan.



Gurrutxaga, artxiboko irudian. AIURRI

Geroz eta lasterketa gehiago kirol egutegian

ATLETISMOA Zumaiako mendi maratoian Igor Amantegi laugarren sailkatu zen

Erredakzioa URNIETA

XII. Zumaia Flysch 42 Km. Maratoia 2021

4. Igor Amantegi 05:11:07.
19. Ivan Piñon 06:09:57.

21 Km.

136. Maialen Gurrutxaga 02:11:27.
158. Aitor Ibarguren 02:13:31.
159. Jagoba Arostegi 02:13:43.
316. Urtzi Ugalde 02:35:01.

20. Media Donostia

21 Km

13. Asier Martinez 01:11:54.
22. Javi Menta 01:14:29.
28. Asier Rajado 01:15:52.
40. Joseba Del Barrio 01:18:00.

Berrobira

10 Km. 21/10/02.

1. Maialen Gurrutxaga 00:29:42.
6. Leire Rajado 00:32:23.



Martinez, artxiboko irudian. UZTARRIA



Euskalduna taldea. EUSKALDUNA

Euskaldunako lehen taldearen hasiera ona

FUTBOLA Erregional mailako Euskaldunako hiru taldeentzat jardunaldi ona izan da

Erredakzioa ANDOAIN

Lehen lau jardunaldiak igarota, bi garaipen eta bi berdinketa lortu ditu eta horrek esan nahi du ez duela oraingoz partidarik galdu. Azken partida hutsean amaitu zen, Aloña Mendiren aurka. Ubitarten garaitez in-za ten jarraitzeko aukera daukate, asteburu honetan Eibar taldearen aurka arituko baitira. Denboraldia hasi besterik ez bada egin, Euskalduna lehen postuetan dago eta Eibar azken postuetan.

Erregional mailako beste taldea, 1. Erregional maila delakoan ari dena, Atotxa River taldearen

aurka 0-5 gailendu zen. Asteburuan Usurbilen aurka ariko dira Ubitarten. Biak 4 punturekin daude, sailkapenean berdinduta.

Emakumezkoen lehen garaipena iritsi da

3. multzoan jokatzeko ari dira andoaindarrak eta aurreko asteburuan denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuten. 3-0 nagusitu ziren Zestoaren aurka. Andoaindarrentzat lehen garaipena izan zen, eta zestoarrentzat lehen porrota. Asteburu honetan Alegian dute partida, Intxurren aurka.



AIURRI

Aitor Muruaren emaitza bikaina

TRIATLOIA Zumeatarra kirol taldeko triatletak Bartzelonako 70.3 Ironman proban parte hartu zuen aurreko asteburuan, eta lasterketa amaituta M50-54 mailan podiuma zapaldu zuen. Izan ere, maila horretan hirugarren sailkatu zen. Eta sailkapen orokorrean, 112. postuan. Zumeatarra elkarteak sare sozialen bitartez zoriandu du.



Goiburuko frontoia. AIURRI

Araudia biltzen duen txartel bana Sorabillan eta Goiburun

KIROLA Ordutegia eta gehieneko iraupena zehazten da, baita erretzeko edo alkohola edateko debekua ere

Erredakzioa ANDOAIN

Sorabillako eta Goiburuko frontoiak herritar ugari erabiltzen dituzte, esku pilotan, frontenisean edota palaz ibiltzeko. Bi auzoetako frontoietan panel bana jarri du Udalak, egun hauetan.

Arauditegia da, eta besteak beste, honakoa biltzen du: goizeko 09:00tatik 22:00tara jokatu ahal izango da bertan, eta norbait zain izanez gero gehienez ere ordubete jokatzeko aukera izango da. Frontoian erretzea, alkohola kontsumitzea eta frontoian jatea debekatu dute. Animularik ere ez da onartuko.



Sorabillako frontoia. AIURRI



AIURRI

Urnietarren partidak

FUTBOLA Jubenil mailako Urnieta A taldeak Zarautz hartuko du etxean, larunbat honetan. 15:30ean hasiko da partida. Kadete mailakoek Kostkas taldea hartuko dute egun berean, 18:15etan hasita. Senior mailako mutilek Lasarte-Orian jokatu dute urriaren 9an, 12:45etan hasita. Eta senior mailako neskek igandean lehiatuko dira Irunen, Mariñoren aurka.



Iñigo Mercader. URRETABIZKAIA

Korrika eta sega apustua Xoxokan, urriaren 12an

HERRI KIROLAK 6.000 euro jokoan, Mikel Lizartza eta Iñigo Mercader lehiatuko dira Urnietan

Erredakzioa URNIETA

Bi proba iragarri dituzte, urriaren 12an: Korrika sei kilometro, eta ordu eta erdiko sega saioa. 6.000 euro dituzte jokoan, goizeko 11:30ean hasiko den proban. Iñigo Mercader hernaniarra da eta apustua irailaren hasieran lotu zuten, Azpeitiako Mendizabal jatetxean. Mikel Lizartza tolosarra uztailean Gipuzkoako sega txapelketan aritu zen, eta baita bakarkako sega ligan ere. Bietan hirugarren sailkatu zen, eta bietan ere irabazle Julen Gabirondo urnietarra izan da.

Pandemia iritsi bitarte, egun hauetan proba eta desafio ugari antolatzen zen Xoxokan.

Apustuak ez du loturarik Xoxokako jai batzordearekin.



Mikel Lizartza. URRETABIZKAIA



Denboraldi hasiera ona izan da urnietarrentzat. UKE URNIETA

Garaipenarekin ekin diote Euskadiko Senior ligari

ESKUBALOIA Urdaibai taldea garaitu zuten, lehen jardunaldian (33-34). Asteburuan Urnietan ariko dira

Erredakzioa ANDOAIN

Eskubaloiko gizonen senior taldeak gol bakarragatik irabazi zuten partida, Urdaibai taldearen aurkakoa (33-34). Hasiera ezin hobea, beraz, urnietarrentzat. Mailari eusteko lehiari zuzenaren aurka bi puntu balioitsu eskuratu dituzte. Partida berdinduta hasi zen, gol askorekin. Lehen zatiaren amaieran, urnietarrek etxekoan akatsak baliatu zituzten atsedendira joan aurretik abantaila lortzeko (13-16). Bigarren zatiaren hasieran dinamika berbera izan zen, baina gutxinaka aurkariak mar-

kagailuan gerturatzeko hasi ziren, eta beraz, azken momentorarte norengiagokoa bizia izan zen. Azkenean, urnietarrek berebiziko bi puntu eskuratu zituzten, mailari eusteko lehiari. Asteburuan etxean egingo dute debuta, bigarren jardunaldian Muskizen aurka ariko baitira.

Jubenilak garaile

Mutilek garaipen garrantzitsua lortu zuten Urolaren aurka (18-24). Bigarren garaipena eskuratu zuten jarraian. Neskek ere bigarren garaipena lortu zuten Legazpi irabazita (16-22).



AIURRI

Senior mailako neskek

ESKUBALOIA Lurraldeko senior emakumezkoa izeneko liga aurreko asteburuan abiatu zen. Urnieta Quel abogaos taldeak atsedean izan zuten, eta Leizaran taldeak Ereintza taldea 24-25 garaitu zuten. Bigarren jardunaldian debuta egingo du Urnietak, hain zuzen Ereintza taldearen aurka. Etxean jokatu dute, ostiral honetan (19:00). Leizaranen partida atzeratu egin da.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 7

ANDOAIN Antzezlan

"Proyecto 43-2" antzezlan eta solasaldia, Andoaingo Udaleko Bizikidetzaren mahaiak antolatuta. **19:00, Bastero.**

ANDOAIN Lehiaketa

2022. urteko Udalgutegia osatzeko argazki-lehiaketa. **Azken eguna: Urriak 31.**

URNIETA Ikastaroak

Pilates, Yoga eta Gazte Funky ikastaroak abiatu dira eta oraindik badago bertan izena emateko aukera. Informazio gehiago Saroben, bulego ordutegian. **Informazioa: Sarobe.**

OSTIRALA 8

URNIETA Haur irakurtaldia

"Liburutegiko xaguak", 4 urtetik gorakoentzat. **17:00, Lekaio.**

ANDOAIN Erakusketa

"Formal formal" izeneko erakusketa zabalik. Artistak: Ane Azkona, Sandra Cuesta, Jone Laspiur, Larraitz Torres, Iñigo Gomez, Itziar Gutierrez, Ane Lekuona. **18:30, Bastero.**

ANDOAIN Lehiaketa

XXV. Martin Ugalde Ipuin Lehiaketa. 10-17 urte bitartekoentzat. Andoaingo eta Urrietako ikasleek parte har dezakete. Info: Bastero.eus. **Lanak aurkezteko azken eguna.**



Iñigo Aranbarri, Ainhoa Aierbe, Asier Sota eta Ainara Ortega aktoreak. KULTURKLIK

URNIETA "Kopaz kopa" antzezlanaren aurre-estrenaldia

Mikel dibortziatua dago, eta idazle frustratua da. Eta Ander ezkontzeko zorian dagoen aktorea da. Azken honen ezkontza-despedidan Amaia eta Terra ezagutuko dituzte. Emakume independente, ekintzaile eta aldartetsuak dira, eta gizonen bizitzak desorekatuko dituzte. Horixe antzezlanaren sinopsia. **Urriak 9, larunbata. 19:00, Sarobe.**

LARUNBATA 9

URNIETA Antzerkia

"Kopaz kopa" antzezlanaren aurre-estrenaldia. **19:00, Sarobe.**

ANDOAIN Antzerkia

"Gag movie" antzezlan, Yllanaren eskutik. Zinemagile talde bat agertokian sartzen da bapatean. Ikusleekin bidaia dibertigarri bati ekingo diote zazpigarren artearen unerik ikonografikoenetako batzuetan zehar. **20:30, Bastero.**

OSTEGUNA 14

ANDOAIN Musika

Kutxi Romero kantariaren emanaldia. **19:00, Bastero.**

OSTIRALA 15


URNIETA Ipuin kontaketa

Saioa Aizpurua, 3-5 urtekoentzat. **17:00, Lekaio.**

URNIETA Kale antzerkia

"Babo royal clown", Ganso&Cia. **18:00, San Juan plaza.**

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

D'atarcán y los tres Mosqueperros

Larunbata, 9. 17:00.

Igandea, 10. 17:00.

Adios, idiotas

Larunbata, 9. 19:30,

22:00.


Igandea, 10. 19:30.

Astelehena. 11. 19:30, 22:05. Ikuslearen eguna.

Printze txikia

Igandea, 10. 12:00.

Euskaraz. Eskaintza berezia: 2,90 euro.



SINOPSIA


**Adieu les cons / Adios, idiotas**

Zuzendaria: Albert Dupontel. **Aktoreak:** Virginie Efira, Albert Dupontel, Nicolas Marie, Adele Galloy, Gregoire Ludig, Michel Vuillermoz, Kyan Khojandi... **Herrialdea:** Frantzia (2020). **Generoa:** Drama, komedia. **Iraupena:** 87 minutu.

Ezinezkoa dirudien bilaketa

Suze Trappet 43 urterekin ohartzen da oso gaixorik dagoela. Eta berak 15 urte zituenean bazterrean utzi zuen semearen bila joatea

erabakitzen du. Bi pertsona ezagutuko ditu bilaketa horretan laguntza emango diotenak. Frantzian, iaz, urteko film ikusiena izan zen.



Zinema euskaraz

Neskatxa baten eta bere bizilagunaren arteko istorioa da. Bere amak helduen munduan bizi dadin prestatzen ari den neska eta bihotz oneko adineko pilotu bitxia protagonista dituen kontakizuna.

Greba deialdia Sabadell Guipuzcoanon, ostiral honetan

Sindikatuak mobilizazioak deitu dituzte aste honetan. Andoaingo banketxearen etorkizuna kolokan dago

Erredakzioa ANDOAIN

Antza denez, Gipuzkoako 39 sukurtsaletatik 19 itxiko lituzkete. Zumea kalean dagoen Andoaingo banketxe ezaguna, udalerriko ikonoetako den eraikin historikoan kokatuta, eta bere

langileen egoera arrisku bizian egon daitezke.

Irailean Banco Sabadellek zehaztasun gehiago eman zizkien sindikatuei bere doikuntza-planari buruz. Bankuak Espainia osoan 1.900 lanpostu gainetik

kentzeko proposamena berretsi zuen. Irteerak bulego-sarean kontzentratuko lirake nagusiki, enplegatuen bajen % 85arekin, 320 sukurtsalen itxierarekin eta beste 176 sukurtsal jarduera txikiagorako eraldaketarekin. Eta hori, aurre-erretiroen plan berri baten ondorioz, beste 1.800 pertsonen lan egiteari utzi diotenean.

Asteartean ordubeteko lan etenaldia egin zuten eta asteazkenean egun osoz itxita izan zen. Ostiralerako greba deialdi



Guipuzcoano banketxea. AIURRI

berria egin dute, eta sindikatuen eta banketxearen zuzendaritzaren aldetik akordioz ez badago, banketxea bigarrenez itxita egongo da.

ELarentzat plana "basatia" da ELAren iritziz, "ez dago halako enplegu-erregulazioko espediente basati baten justifikaziorik; izan ere, enplegu-erregulazioko espediente aitzakia baino ez da etekin berehala handitzen jarraitzeko, langileez eta bezeroez arduratu gabe".



Euskaraldia, artxiboko irudian. AIURRI

2022ko Euskaraldia antolatzen hasteko bilera deitu dute

Euskara zerbitzuak eta Euskaraldiak antolatu dute, datorren urriaren 15erako

Erredakzioa URNIETA

Euskaraldiaren edizio berria 2022an izango da, eta Andoaingo Udala eta Euskaraldia ekimena aktibatzeko lanean hasi dira. Herritarrek lehen bilerara hurbiltzeko deialdia egin dute: "Euskaraldia bi urtez behin egingen den aktibazio ariketa da, baina euskarak 365 eguneko bultzada behar du, eta Euskaraldiarekin oihartzun handia lortzen duen arren, edizio batek bestera hutsean gera ez dadin, bestelako lanak ere egin behar dira. Horregatik urriaren 15ean arratsaldeko 18:30ean Bastero

Kulturgunean izango dugun bilerara bertaratzeko eskatzen dizugu". Bilera horretan bi gai jorratuko dituzte. Lehena, 2022ko Euskaraldia aurrera eramango duen lan-taldea osatzea. Bigarrena, 2021eko azaroaren 21etik abenduaren 5era Euskal Herri mailan antolatuko den ekimenaren berri ematea. Egitasmo berrian haurrekin harreman zuzena duten helduen aktibazioa sustatuko dute.

Bilerara joateko asmoa duenak e-posta bidez jakinarari behar du: euskarazerbitzua@andoain.eus.

BILERA BASTERO KULTURGUNEAN IZANGO DA URRIAREN 15EAN, 18:30AN HASITA

LEHEN BILERAN EUSKARALDIA AURRERA ERAMATEKO TALDEA OSATU NAHI DUTE



AIURRI

Itzalaldia eta lapiko-jotzea

Argindarraren prezioaren etengabeko igoera salatzen asmatan, "Deskonektatu elektriketatik!" lemapean hitzordu bikoitza deitu dute, ostiral honetarako. Itzalaldi elektriko masiboa deitu dute, gaueko 22:00etatik 22:30etara. Era berean lapiko-jotzea deitu dute Andoaingo Goikoplazan hasi eta Zumea plazan amaituko den elkarretaratzearen bitartez.



AIURRI

Lehiaketa martxan

Andoainen lehenik, eta Urnietan ondoren, Udal egutegiak herritarren parte hartzearekin osatzen ari dira. Urnietan, esaterako, "emakumezkoen eta gizonezkoen artean parekidetasuna islatzen duten eguneroko egoerak" plazaratu nahi dituzte. Parte hartzeko interesa dutenek Urnieta.eus gunean aurki dezakete informazio gutzia eskura. Azaroaren 5a da azken eguna.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Zorionak potto! Irailaren 30ean, 16 urte Eneko, a ze mutil puska!!! Jarraitu jator eta irribarretsu izaten. Izugarri maite zaitugu. Etxekoak.



ANDOAIN Zorionak Eider! Urriaren 9an, larunbat honetan, 5 urte beteko dituzu. Zein handia egingen ari zaren! Ondo pasa etxekoekin eta lagunekin. Muxuak! Etxekoak.

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK Hizkuntza eskolako irakasleak **frantseseko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresarako klaseak. **693 692 823 - 665 719 827**

Ingeles irakasle diplomatu behar da klaseak emateko **English First Certificate** azterketa prestatzeko. **693 692 823**

Andoaingo emakume pentsioduna hizkuntza

laguntza edo **mintz-lagun** bila dabil: Gaztelaniaz eta ingelesez / danesaz aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: **reflexologist45@yahoo.co.uk**

MERKATU TXIKIAN PARTE HARTZEKO

Email: **diseinua@aiurri.eus**
Whatsapp: **619 163 537**
Tel.: **943 300 732**
Bulegora etorrita: **Arantzibia 4-5, behea. Andoain**

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Urnietan: 943 006 680.

ANDOAIN

Udaltzaingoa: 943 300 819.
Ertzaintza: 943 538 840.
Anbulatorioa: 943 006 670.

Oiartzabal gogoan

Senideek, lagunek eta herrikideek parte hartu zuten Axier Oiartzabal herrikidearen aldeko elkarretaratzean. Aurreko ostiralean izan zen Goikoplazan, andoaindarrak hogeit hamar espetxean daramala gogora ekartzeko. Urte horiek guztiak Euskal Herriatik urrun eman ditu. Ekitaldian Oiartzabalen adierazpen batzuk entzun ziren.



AIURRI





Urkullu lehendakariak agerraldia eskaini zuen astearte arratsaldean. IREKIA

Osasun-larrialdi egoera amaitutzat eman du Eusko Jaurlaritzak

Iñigo Urkullu Lehendakariak egindako agerraldian iragarri zuenez, ostegun honetan bertan behera geratuko da Koronabirusari aurre egiteko indarrean jarritako osasun-larrialdi egoera. Etapa berri bat abiatzear dela erantsi zuen

Erredakzioa ANDOAIN

Atearte arratsaldean agerraldia deitu zuen Iñigo Urkullu Lehendakariak, 2020ko martxotik indarrean zegoen osasun-alarma egoera bertan behera geratzen zela iragartzeko. Ostegunean indarrean sartuko da dekretua, azken asteetako joera ona baliatuta. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak Bizi Berri Planaren baitan pandemiaren jarraipena egiteko egoera ezberdinak aurrikusi zituen. Lehen mailan izanik, egoera kontrolpean dagoela dirudienean, garaia iritsi da jardueren ordutegiak eta edukierak mugatzeko neurriak kentzen hasteko.

Ondorioz, osasun-larrialdiko egoera desaktibatuta egin da. Hala ere, "zuhurtziari, erantzukizunari, konpromisoari eta espiritu baikor eta eraikitzaileari eustea beharrezkoa dela azpi-

marratu zuen Urkullu lehendakariak. "Etapa berri bati ekingo diogu, Euskadi suspertzeko unea da", adierazi zuen segidan.

Neurri mugatzaile gehienak bertan behera geratuko dira

Murrizketa batzuk mantenduko dira, hala nola espazio itxietan eta 5.000 lagunetik gorako edukiera duten esparruetan %80ko mugari eustea. Era berean, "indarrean jarraituko du maskara erabili beharrak barnealdeetan; baita ere kanpoaldeetan, pertsonen arteko distantzia mantendu ezin denean".

Euskadin osasun-larrialdiko egoera desaktibatuta, desegin egin da Lehendakariari laguntzeko izendatutako Aholku Batzordea. Hala ere, Lehendakariak adierazi zuenez "egoera egunez egun ebaluatzen eta aztertzen jarraituko da".

C-19 analisia

Facebook bidez, Urko Vallejo datu eta analisi bikainak eskaini ditu. Egoera berriaren harira, honako hausnarketa egin zuen asteartean: "Gipuzkoan eremu berdean sartu ezinik gabiltza. Ostegunetik aurrera murrizketa gehienak kenduko dituztela kontuta hartuta, litekeena da, epe ertainera, intzidentzia-tasak gora egitea. Gustatuko litzaidake, Eusko Jaurlaritzak, hori gertatzen denerako, zer neurri hartuko dituen alde aurretik adieraztea. Bestetik, aurreko astean 26 hildako izan ziren koronabirusarekin EAEn. Ez naiz sartuko kopuru hori onargarritzat hartu behar dugun edo ez esaten; baina agerian geratzen da Eusko Jaurlaritzarentzat onargarriak direla hildako horiek, eta nire iritziz, garbi adierazi beharko luke hori".



LABIren azken bilera egin zuten asteartean. IREKIA

Araudiak eta erabakiak hartzen zituen LABI desegin egin da

Osasun alarma bertan behera geratu denez, batzorde bereziaren funtzioa amaitu da

Erredakzioa ANDOAIN

Euskadin osasun-larrialdiko egoera desaktibatuta, desegin egin da Euskadiko Babes Zibileko Planaren zuzendaritzan eta koordinazioan Lehendakariari laguntzeko izendatutako Aholku Batzordea. Nolanahi ere, Lehendakariak adierazi du egoera egunez egun ebaluatzen eta aztertzen jarraituko dela.

Asteartean Iñigo Urkullu Lehendakaria Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) zuzendari bakar gisa laguntzen dion Aholku Batzordearen bileraren buru izan zen. Harekin batera izan ziren, halaber: Josu Erkoreka, lehen lehendakariordea eta Seguritasuneko sailburua; Olatz Garamendi, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua; Gotzone Sagardui, Osasun sailburua; Bingen Zu-

piria, Kultura eta Hizkuntza Politiketako sailburua eta Eusko Jaurlaritzako bozeramailea; Jokin Bildarratz, Hezkuntza sailburua; Iñaki Arriola, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua; Javier Hurtado, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua; Jose Luis Quintas, Osasun sailburuordea; Rosa Perez, Osakidetzako zuzendari nagusia; Ramiro Gonzalez, Markel Olano eta Unai Rementeria Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko ahal-dun nagusiak; Gorka Urtaran Eudel Euskadiko udalerrien presidentea, Juan Mari Aburto eta Eneko Goia Bilboko eta Donostiako alkateak; Denis Itxaso, Espainiako Gobernuaren ordezkaria; eta Jonan Fernandez, Covid-19aren batzorde tekniko koordinatorra.

Txertaketak aurrera jarraituko du Arrate pilotalekuan

Andoaingo Udalak osasun sailak beharrezko ikusten dituen baliabideak utziko dizkiola adierazi du

Erredakzioa ANDOAIN

Tolosaldeko Osakidetzaren ordezkariak hala eskatuta, Arrate pilotalekuak txertaketa-gune izaten jarraituko du. Helburu bikoitza izango duela iradoki du Andoaingo Udalak. Oraindik COVID-19aren aurka txertatu

ez diren herrikideak hurbiltzea. Eta, bestalde, laster ekingo zaio-lako gripearen aurkako txertaketa.

Udalak adierazi duenez, Osakidetzaren esku jarriko ditu beharrezkoak diren udal baliabideak.